



ELURRA IBARREAN

Marilar Aleixandre

*Begoña Montorioren itzulpena
Aranzazu Callejaren marrazkiak*

Desclée De Brouwer



ELURRA IBARREAN

Duela urte asko, baina
asko asko, Granadan
errege mairua zegoen garaian,
Berta izeneko neskatila bat
bizi zen Amaia ibarrean.
Diotenez, urte haietan hain
izan ziren gogorak hotzaldiak
non ibai eta lakuak izotz
bilakatu ziren, elurrak



mendietako gainak, ibaiak eta lautadak estali zituen eta zikoinak, otsailean Egiptotik honantz etorri eta dena zuri eta izozturik ikusi zutenean, hegalei eragin eta atzera ere hegorantz abiatu ziren.



Berta amamarekin bizi zen,
eta beheko sua piztuta izaten
zuten beti hotzik ez
pasatzeko. Garai hartan
pospolorik ez zegoenez, gau
osoan iraunarazten zituzten
txingarrak piztuta errautsen
azpian, biharamunean egur
lehorra botaz sua berpiztu
ahal izateko.



Egun batez, goizean goiz,
barazki sorta batzuk hartuta,
honela esan zion amamak:

—Azokara noa barazki hauek
saltzera. Adi ibili sua itzali ez
dadin.





Berta lanean hasi zen:
putzutik ur-galdara bat
ateratzera joan zen, sukaldea
eskobatu zuen, oiloei jaten
eman zien, arraultze bi bildu
eta sutegirako egur batzuk
eraman zituen, baina denbora
gehiegi pasatu zen eta
tximiniatik behera etorritako
haize hotzak eta euri busti
boladak txingarrak itzali
zituzten.



—Zer egin behar dut orain?
Nola piztuko dut?

Gogora etorri zitzaion
orduan, amamak, noizbait,
auzokoari, Sar ibaiaren beste
aldean bizi zen Tomé jaunari
eskatu izan zizkiola ilintiak.



Baina Tomé jauna oso jenio txarrekoa zen, beti marmarka, eta Berta ordurarte ez zitzaion inoiz ezeren eskean joan. Tartetxo batez buruari bueltaka ibili ondoren, indarrak bildu, ilintiak ekartzeko lapikotxo bat hartu, eta etxetik irten zen.



Hotz izugarria zegoen
kanpoan. Izotzez zurituta
zeuden zelaiak, hirusta
hostoek azukrezko gozokiak
ematen zuten
eta izotz-kandelez estalitako
zuhaitzek beiraren pareko
dirdira zuten.



Bestelakoetan zubitik
zeharkatzen ohi zuen Bertak
ibaia, baina izozturik
zegoenez, ibai gainetik ibili
zen, ilea nahastu eta hotza
hezurretaraino sartzen zion
haize zurrunbiloak
bultzaturik.



Tomé jaunaren etxera heldu zenerako gorriturik zuen sudurra eta ez zituen ia sentitzen esku-oinak. Atea ez zegoen itxita, baina Berta ondo hezitako neskatila zenez, sartu aurretik deitu egin zuen: “Kox, kox, kox”.

—Nor da? Nor da? –galdetu zuen Tomé jaunak barrutik.



—Egunon -erantzun zuen
neskak-. Berta nauzu,
Xoana andrearen iloba.

—Hara, bada! -esan zuen
gizonak, agurrari erantzun
gabe-. Zerbaiten eskean
etorriko zara, noski...



—Hala nator, bai... sua itzali
zait eta ez dut ezer hura
pizteko.

—Hau neska burugabea!
Argi dago amamak ez duela
onik zurekin.



—Mesedez -esan zuen
Bertak-, sua pizteko ilinti
batzuk utziko bazenizkit...

—Hortaz, nire ilintiak nahi
dituzu! Eta zer emango
didazu trukean?



—Ez dakit... ez dut eta ezer.

—Kantatzen duen ur hurrupa batzuk ekarriko dizkidazu —esan zuen Tomé jaunak— hotzez lehortzen ari zaizkidan mertxikondoetarako —eta erantsi zuen—: Lapikoa hemen utz dezakezu eta ura ekartzeko galdara hau eramán.



Berriro ere, kanpoan gelditu zen Berta, eskuan galdaratxoa eta nora jo ez zekiela.

Non bil zezakeen kantatzen duen ura? Negar egiteko zorian zegoen, baina mina hartzen zuenean amamak esaten ziona gogoratu zuen: “Negar egin baino lehen, hartu arnasa sakon eta kontatu zazpirarte”, beraz, begiak itxi, arnasa sakon hartu eta kontatzeari ekin zion:



—Bat, bi, hiru, lau,
bost, sei eta zazpi.

Begiak artean itxita zeuzkala
ahots bat entzun zuen berari
berbetan:



—Zer zabilta? Zer egiten
duzu hemen lotan?

Eta begiak zabaltzean kilker
bat ikusi zuen, oinen ondoan
saltoka.

—Ez nago lotan -esan zuen
Bertak-, kantatzen duen ura
bilatu behar dut.

—Zertarako?, zertarako?

